



Espainiako Vueltaren ibilbidearen aurkezpena, atzo, Bartzelonan. ALEJANDRO GARCIA / EFE

## ETAPAK

- Abuztuak 26.** Bartzelona-Bartzelona (14,6 kilometroko taldekako erlojupekoa).
- Abuztuak 27.** Mataró-Bartzelona (181,3 km).
- Abuztuak 28.** Surian-Arinsal (158,5 km).
- Abuztuak 29.** Andorra la Vella-Tarragona (183,4 km).
- Abuztuak 30.** Morella-Burriana (185,7 km).
- Abuztuak 31.** Vall d'Uixo-Javalambreko Behatokia (181,3 km).
- Irailak 1.** Utiel-Oliva (188,8 km).
- Irailak 2.** Denia-Xorret de Catí (164,8 km).
- Irailak 3.** Cartagena-Caravaca de la Cruz (180,9 km).
- Irailak 4.** Atsedn eguna.
- Irailak 5.** Valladolid-Valladolid (25 kilometroko banakako erlojupekoa).
- Irailak 6.** Lerma-Laguna Negra (163,2 km).
- Irailak 7.** Olvega-Zaragoza (165,4 km).
- Irailak 8.** Formigal-Tourmalet (134,7 km).
- Irailak 9.** Salbaterra Bearn-Larra-Belagua (161,7 km).
- Irailak 10.** Iruñea-Lekunberri (156,5 km).
- Irailak 11.** Atsedn eguna.
- Irailak 12.** Liencres-Bejes (119,7 km).
- Irailak 13.** Ribadesella-Angliru (122,6 km).
- Irailak 14.** Pola de Allande-La Cruz de Linares (178,9 km).
- Irailak 15.** La Bañeza-Iscar (177,4 km).
- Irailak 16.** Manzanares el Real-Guadarrama (208,4 km).
- Irailak 17.** Zarzuolako Hipodromo-Madril (101 km).

## Igotzaileak, eskuak igurtzika

Oso menditsua izango da aurtengo Espainiako Vuelta • Etapa bat Tourmaleten bukatuko da, eta bi Euskal Herrian jokatuko dira • Taldekako erlojupeko batek abiaraziko du lehia, Bartzelonan

### Eñaut Agirrebengoa

Mendate ikonikoek emango diote sona 2023ko Espainiako Vueltari. Tropelak, besteak beste, Tourmalet, Angliruko eta San Martingo Harriko malda ezagunak igo beharko ditu, abuztuaren 26an Bartzelonan hasiko den lasterketan. Han egin dute gaur ibilbidearen aurkezpen ekitaldia. Eskalazaleentzako aproposa izango da, guztira hamar etapa bukatuko baitira mendate batean. Pirinioak izango dira puntu beroetako bat: hasi eta berehala agertuko dira, eta bigarren astean itzuliko. Orduan iritsiko da lasterketa Euskal Herrira: 14. etapan, zehazki. Zuberoatik Nafarroara joko dute, eta Larra-Belaguako eski estazioan egongo da helmuga. Biharamuneko etapak Iruñea eta Lekunberri lotuko ditu.

Erlojupeko batekin abiatuko da Vuelta: 14,6 kilometro egingo dituzte, taldeka. Lehen atsedn

egunaren ostean, berriz, 25 kilometroko bakarkako saioa egingo dute.

Aurrenekoz bukatuko da Vueltako etapa bat Tourmaleten. Antolatzaileek 2020an jarri nahi izan zuten helmuga mendate mitikoa, baina asmoak ezerezean gelditu zitzaizkien, pandemiaren ondorioz. Formigal izan zen ordezko bukaera, eta garaipen handia lortu zuen han Ion Izagirrek. Aurten, Formigal bertan hasiko da 13. etapa, eta oraingoan bai Tourmaleten egongo da helmuga. Tartean, beste igoera gogorak ere izango dituzte: Aubisque eta Spandelles. Lasterketako plater nagusietako bat izango da; motza, baina gogorra: 4.200 metroko desnibela pilotatu dute 135 kilometroan.

Bapo egingo dute zaleek, beste etapa gogor bat jokatu baita hurrengun egunean. Ziklistak Oloro-Donamariatik irtingo dira, eta Zuberoan Murkuillako Le-

poa eta Larraine igoko dituzte. Gero, Lazako mendateak pasatu dira, eta San Martingo Harriari bukatuko dute. 161 kilometroko saioa izango da. Hurrengo etapa Iruñea eta Lekunberri artean jokatu da, eta ez da horren menditsua izango. Duela bi urte ikusizun ederra izan zen Aralarren,

### Salbaterra Bearnotik Larra-Belaguara jokatu da hamalagunen etapa; Iruñetik Lekunberria hamabosgarrena

baina aurten, Lekunberri ez dira mendate horretatik iritsiko, Madotzeko igoera etzanetik bai. Bitan igoko dute. Guztira, 156 kilometro egingo ditu tropelak.

Lasterketak hasieratik piztuko du ikusmina. Bartzelonako erlojupekoak lehen arteak sortuko ditu laboritoen artean, eta biharamunean, lehia bizia egongo da Montjuiceko igoeran. Atsedn hartzeko betarigabe, Andorrako

etapa iritsiko da hurrena. Lehen mailako Arinsalen egongo da helmuga, eta aurrez Ordino igoko dute. Beste bi etapa bukatuko dira goian lehen astean: 6.a, Javalambreko begiratokia; eta 9.a, Caravaca de la Cruzen. Xorret de Catira igo, eta jaitsieran izango du helmuga 8. etapak.

Bigarren asteari bakarkako erlojupekoarekin ekingo diote, eta hortik aurrera, ondo tentetako da ibilbidea. 11. etapa Laguna Negran bukatuko da, eta Pirinioetako etapa handiak jokatu dira segidan. Iruñea eta Lekunberri arteko etapa bukatuta, atsedn hartuko dute. Hobe dute indarberritzea, azken txanpa alagarria izango baita.

### Angliruren itzulera

Ohiko legez, etapa erabakigarriak jokatu dira Asturiasen. 17.ean Colladiella, Cordal eta Angliru kaiteak dituzte. Mendate ospe-

tsuan bukatuko dute saioa. 2020an igo zuten azkenekoz. Egun bat geroago, Vueltan sekula igo ez duten Cruz de Linaresen aurkituko dute helmuga. Beste lau mendate igoko dituzte aurrez, horietako bi lehen mailakoak. Azken ahalegina 20. etapan egin beharko dute sailkapen nagusiko ziklistek, Guadarramako mendilerroan. Zirkuitu itxurako ibilbidea izango du, eta hirugarren mailako hamar igoera gainditu beharko dituzte. Kili-kolo dabilzantzat, jasan ezina izan daiteke.

Irailaren 17an helduko da tropela Madrileran, eta han koratuko da Vueltako irabazlea. Iaz Remco Evenepoelk (Quick Step) irabazi zuen, baina ikusateko dago lehia-tuko den alaez. Munduko Txapelketa Vueltaren aurretik jokatu da, eta horrek eragina izan dezake parte hartzaileen zerrendan. Gombidapenak garesti egongo dira, eta litekeena da Euskal Herriko talde bat edo bi kanpoan geratzea.